



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

1. TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.1. EGOERA ETA AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

- EAEko BPGa % 3,7 hazi da 2005ean; tasa hori 2004koa baino (% 3,3) zertxobait handiagoa da, eta azken 5 urteetan izandako altuena ere bada. 2005ean BPGak izandako hazkunde-tasaren ondorioz, EAE ekonomia dinamikoenen artean dugu, hainbat herrialderen hazkunde-tasak gainditzen baititu, hala nola Estatuarena (% 3,4), EB-25ena (% 1,6), eta baita Estatu Batuena (% 3,5) eta Japoniarena ere (% 2,8).
- Eskariaren ikuspuntutik begiratuta, kontsumo pribatuaren sendotasunean oinarritzen da EAEn hazkunde ekonomikoa (% 3,3ko hazkundera 2005ean), baina baita inbertsioak izan duen bilakaera positiboan ere (% 5,3ko hazkundera 2005ean). Den dena, kanpo-saldoak ekarpen zertxobait negatiboa du hazkunde ekonomikoarekiko (% -0,1).

1.1 koadroa EAEn jokaleku makroekonomikoa

(Urtearteko aldakuntzaren %-a)


	2002	2003	2004	2005	2006a
BPG erreala	2,3	3,1	3,3	3,7	3,6
Barne-eskaria	3,2	4,4	3,5	3,7	3,8
KPI (Kontsumorako Prezioen Indizea) (b)	3,9	2,6	3,2	3,7	--
BJAren okupazioa	5,0	1,4	1,6	1,3	--
BJAren langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %-a)	8,3	8,6	7,8	5,7	5,2

(a) Aurreikuspena.

(b) Urte bakoitzeko abendu hazkunde-tasa.

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Eusko Jaurlaritza. Bertan egina.

1.1 grafikoa. EAEn hazkunde ekonomikoa nazioartean



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Eskaintzaren ikuspuntutik begiratuta, eraikuntzaren sektoreak izan duen hazkundea da azpimarratzekoa (% 6), beste urte batez ere hori izan baita euskal ekonomiaren hazkunde-eragile nagusia. Dena den, zerbitzuen sektoreak eta industriak ere hazkunde-tasa aipagarriak izan dituzte (% 3,2 eta % 2,7, hurrenez hurren). EAEn 2002tik 2005era izandako BPGaren hazkundearen % 14 inguru eraikuntzaren sektoreak izan duen bilakaera positiboari zor zaio.
- Lan-merkatuaren bilakaera positiboan oinarritzen da barne-kontsumoaren sendotasuna. Guztira 941.200 lagun daude okupatuta EAEn BJaren arabera, hots, 2004. urtean baino 12.000 lagun gehiago (% 1,3 gehiago). Aldi berean, EAeko langabezia-tasa % 5,7 jaitsi da, eta jaitsiera hori nabarmena da 2004ko tasarekin alderatuz gero (% 7,8), eta are nabarmenagoa 2001ekoarekin alderatuz gero (% 11,1).

1.2 koadroa EAEko sektore ekonomikoen hazkundea

(Urtearteko aldakuntzaren %-a)

	2002	2003	2004	2005	2006a
Nekazaritza eta arrantza	-0,6	-5,7	16,8	5,8	--
Industria	0,9	1,2	2,5	2,7	3,8
Eraikuntza	5,2	4,9	5,4	6,0	5,9
Zerbitzuak	2,7	3,2	3,1	3,2	3,0
BPGa merkatu-prezioetan	2,3	3,1	3,3	3,7	3,6

(a) Aurreikuspena.


Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Eusko Jaurlaritza. Bertan egina.

- Inflazioa berriz hazi izana da alderdi ekonomiko negatibo gutxietako bat testuinguru positiboaren barruan. Gauzak horrela, 2005eko abenduan % 3,7ko urtearteko aldakuntza-tasara iritsi zen KPIa, 2004ko erregistroaren gaineratik (% 3,2), eta 2003ko erregistroaren gaineratik ere bai (% 2,6). Petrolioaren prezioak izandako garestitze nabarmenari egotz dakioke hazkunde hori, baina arestian aipaturiko eskariaren sendotasunari ere zor zaio, ziur asko.
- Interes-tasek, bestalde, oso maila baxuetan jarraitzen dute, 2005. urteko bigarren erdian eta 2006. urteko lehen hilabeteetan igoerak izan badira ere. Euriborra —hipoteka maileguren erreferentzia-tasa nagusia— % 3,2ko tasara iritsi zen 2006ko apirilean, 2005eko ekainean % 2,1eko gutxienekoa markatu ondoren. Europako Banku Zentralaren erabakien ondoriozko bilakaera da hori, interes-tasa ofiziala % 2,5eraino igo baitu, hainbat urtetan % 2ko tasa atxiki ondoren.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

1.2 grafikoa. Interes-tasen bilakaera (urteko batez besteko tasak)



* 2006ko apirilko interes-tasak.

Iturria: Espainiako Bankua. Bertan egina.

- Datozen urteetarako aurreikuspen ekonomikoak positiboak dira, % 3 inguruko hazkundearekin, betiere Europako batez bestekoaren gainetik. Zehazkiago esanda, 2006ko ekitaldirako Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenek % 3,6ko hazkundera markatzen dute, langabezia-tasa % 5,2raino murriztuta eta inflazioari gehiago eutsita.

1.2. BILAKAERA ETA JOERA SOZIO-DEMOGRAFIKOAK

- EAEko biztanle kopuruaren hazkundera apala gertatzen ari da azken urteetan. Biztanleen Udal Erroldaren azken datuen arabera, 2.123.800 lagunek osatzen zuten guztira EAEko biztanleria (2000n baino 25.000 lagun gehiago, % 1,2).
- EAera iristen diren etorkinen kopurua handitu izanari zor zaio batez ere biztanleen gehitze hori (30.300 2004. urtean eta 11.000, aldiz, 90 hamarkadaren erdialdean). Gauzak horrela, 2000tik 2003ra EAEn izandako migrazioak 22.100 laguneko guztizko saldo positiboa erakusten digu, atzerritar nazionalitatea duten etorkin ugari tarteko (13.563 2004an eta 2.500 besterik ez, aldiz, 1998an).



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

1.3 koadroa EAEko biztanleriaren azken bilakaera. 2000-2005.

(biztanle kopurua)


	2000	2001	2002	2003	2004	2005*
Araba	286.497	288.793	291.860	294.360	295.905	299.267
Bizkaia	1.132.729	1.132.616	1.133.444	1.133.428	1.132.861	1.135.847
Gipuzkoa	679.370	680.069	682.977	684.416	686.513	688.677
EAE, guztira	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.123.791

* Behin-behineko datuak.

Iturria: INE. Biztanleen Udal Errolda. Egilea: Ikei.

- Erroldaren datuen arabera, EAEko biztanleen % 3,4 atzerritarrak ziren 2005ean (Arabaren zuten beste lurraldeetan baino indar handiagoa), eta tasa horrek hazkunde nabaria adierazten du 2002ko % 1,82arekiko, baina oraindik ere maila erlatiboki baxuetan dago Estatuko tasarekin alderatuz gero (% 8,4).

1.3 grafikoa. EAEko biztanleria atzerritarraren bilakaera. 1986-2005.




Iturria: INE. Biztanleen Udal Errolda. Bertan egina.

- Era berean, Eustatek biztanleriari buruz eginiko proiektzioen arabera, biztanle kopuruak gora egiten jarraituko du 2015era arte (80.000 lagun, 8.000 lagun/urte inguru), guztira ia 2,2 milioi biztanlera iritsita 2015ean. Etorrinen etorrera izango da EAEn biztanle-irabaziaren eragile nagusia (6.000 lagun/urte), eta biztanleriaren mugimendu naturalak eragin txikiagoa izango du (2000 lagun/urte).
- Adin-egituraren ikuspuntutik begiratuta, 20 urtetik beherakoen biztanleria haziko da bereziki datozen urteetan (jaiotze-tasa handiagoen ondorioz) eta baita 65 urteko eta urte gehiagokoen kolektiboa ere, batik bat 80 urteko eta urte gehiagokoena. Gauzak horrela, emantzipaziorako adin egokiagoetan dagoen segmentua (20-39 urte) murriztu egingo da apurka-apurka.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

1.4 grafikoa. Emantzipatzeko adin egokietan dauden gazteen kopuruaren aurreikuspena (1996-2015)



Iturria: Bertan egina.

- Gauzak horrela, eta betiere etxebizitza bat eskuratzeko premien ikuspuntutik begiratuta, aurreikuspen demografikoek planteatzen diguten jokalekuak gazteen etxebizitza-eskari txikiagoa du (talde ez hain ugariak iritsiko direlako emantzipaziorako adin egokietara, hots, 80ko hamarkadaren hasieraz geroztik jaiotako taldeak), eta etorkinen etxebizitza-premien hazkundera.
- Dena den, familiak eratzerakoan izandako aldaketa soziologikoen eragina hartu behar da kontuan, lagun bakar batek osaturiko familien kasuari dagokion proportzioa gero eta handiagoa baita. Ildo horretan, nabarmentzekoa da familien batez besteko tamaina 1981eko 3,69 pertsonatik 2001eko 2,76 pertsonara gutxitu dela (2004an 2,66 pertsona/familia batez besteko tamaina aurreikusita dago, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eginiko azterlan baten arabera).
- Biztanleriari dagokion jokaleku horren arabera, eta betiere familiaren tamaina gutxitzeko joera hori atxikiko den hipotesipean, aurreikusi daiteke hurrengo 10 urteetan EAEn 100.000 familia inguruko gorakada izango dela (10.000 familia/urte). Hazkunde nabarmena da, 1996-2005 aldian izandako familia kopuruaren hazkundearekiko geldotzea bada ere (15.000 familia/urte).
- Alde batetik, gerraostean jaiotako belaunaldi bete-beteen arian ariko zahartzeak adinekoek osaturiko familia kopuruaren hazkunde oso nabarmena eragingo du, asistentzia-politikei eta etxebizitzari buruzko politika publikoei erronka berriak planteatuz.
- Bestalde, lehen etxebizitza eskuratzeko premiari dagokionez, emantzipazio-adinetara iristen diren gazteen kolektiboak etxebizitzaren eskaria bultzatzen jarraituko du ziur asko, talde hori alde aurreko etapetan bezain handia ez bada ere, eta betiere egun jada badagoen eskariarekin eta etorkinen eskariarekin batera.